

EKITEN lehiaketako sari banaketa

2013/07/10

Aurten lehiaketaren VII. edizioa izan da, eta hiru kategoria biltzen ditu: Enpresa Ideia Berrien Lehiaketa, Landa Ingurunea Garatzeko Ideia eta Proiektuak, eta Hiri Adimentsuen edo Smart Cities alorreko Ideiak.

Lehiaketak Mondragon Unibertsitatearen 'Ekiten' ekintzailatza-programaren barruan daude eta 165 ikasleren parte-hartzea izan dute, 57 proiekturen bidez.

Hiru kategorietako lehen sari bakoitzak 1.000 euro jasoko ditu, eta bigarren eta hirugarren sailkatuek, berriz, bostehuna euro, hurrenez hurren.

Enpresa Ideia Berrien Lehiaketa, Gaztempresak babestua, Cooking Points ekimenak eskuratu du. Edozein plater prestatzeko behar diren sukaldaritzako era guztietako materialez hornitutako lokala da, ondoren plater horretaz gozatzeko espazioa ere eskaintzen duena. Guztira 41 taldek hartu dute parte kategoria horretan.

Landa Ingurunea Garatzeko Ideia eta Proiektuen kategoriako lehen saria, Deba Goieneko eta Barreneko Landa Garapeneko agentziek babestua, esleitu gabe gelditu da, eta bigarren saria GEO-LIFE proiektuak eskuratu du. Ekimenak etxea eraginkortasun handiagoz berotu eta hozteko energia geotermikoko instalazioa eskaintzen du. Kategoria horretan 6 taldek hartu dute parte.

Bizikleta elektrikoak alokatzeko Smart Mobility, Garraio Sistema Adimentsua ideiak irabazi du Hiri Adimentsuen alorreko Ideien Lehiaketa, guztira 10 talderen partaidetza izan duena.

